

EXTRADIZIOEI BURUZ ZENBAIT GOGOETA

Azkenaldiotan, bizi bizirik izan dugu gure artean extradi-
zioen arazoa. Belgikak, direla hilabete batzu emandako lehen
extradizioen ondoren, nolabaiteko beldurra genuen. Hala ere,
Frantziak tradizionalki izan duen portaera ikusirik ez genuen
uste, bat batean halako aldaketarik izango zenik.

Gogoratu egin behar da, gainera, Miterranek, berak ere
hauteskunde bezperetan, Linazaren kasua tarteko zela, extradi-
ziorik ez emateko promesa egin zuela. Orain, ostera, Frantziako
agintariek, historian zehar jarraitu izan duten bideari uko eginez,
eman egin dituzte extradizioak.

Hor eta hemen irakurri eta entzun izan dugunez, gogor jo-
katu omen du Españaiko gobernuak, Frantzian ere gobernu so-
zialistak agintzen duela eta. Europa osoa ekonomiazko krisialdi
gogorrean murgildurik aurkitzen den une honetan, zerikusi
handia izan omen dute tratu ekonomikoek eta militarrek. Fran-
tziarren norberakeria ezaguturik ongi garesti ordaindu beharko
zituena Españaiko gobernuak extradikzio horiek.

Frantziako gobernuak, hango herrialdeak hain harrotsu al-
darrikatu izan duen «babes-herri» izateari uko egin dio «LA
GRAND FRANCE» estatuaren egungo abantaila konkretu
batzuren pentsutan. Miterranek, emandako hitzari uko eginez,
fidegarritasun osoa galdu du. Sozialismoaren izatea bera ere au-
zitan jarri du. Hori dela eta, Frantziako sozialisten artean ere
zenbait agertu dira jokera horren aurka.

Dena dela, ez gaitezen harritu, lehengoan Miterran Ipar

Euskal Herrira hurbildu zenean, harro eta irainkor ez zuela euskaldunon autonomiarantz bide den urratsik onartuko esan zuen eta. Horren beldurrez, nonbait, ez du Euskal Departamentua sortzeko hitzik ere bete nahi.

Bestalde, hor dugu Españako gobernua gatazka gogorrean Euskal Herria su eta ke bere esanetara makurterazi nahian. Horretaz jabetzeko, azken bi urte hauetan, PSOE-koek gobernua eskuratu zutenetik, Madrideko gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin erabilitako joera aztertzea baino ez dugu. Urte luze bi hauetan ez dio transferentzia bakar bat ere egin. Gehiago oraindik! Lehendik emanak zituenak ere murriztu egin dizkio Parlamentuan zenbait lege murriztaila onartuz. Gertaerarik lotsagarriena LOAPA deituaren kasua dugu.

Euskal Herria, beraz, bere nortasuna aurrera atera ezinik arazo ekonomiko laborean artean txunditurik agiri zaigu. Etsaien zigorkadak eta erasoak ere inoiz baino biziagok egin zaizkigu. Madrideko gobernuak, hurrengo hauteskundeetara lorturiko zerbait eraman nahi eta langabeziaren aurka ezer gutxi egiterik duenez, nolabait «euskal arazoa» tiroz, makiladakaz, lege bereziz, edo ahal den modura konpondurik aurkeztu nahi du.

Españako batasunaren alde inork baino gehiago egin dutela eta estatu barruan sortu berri diren «autonomia» kaxkarren parekoa izan behar duela Euskal Herrikoak ere aditzera emateko, gogor baino gogorrago ekin diote PSOE-koek gure Herriaren aurkako erazoari.

Eta horra hor nun lortzen dituen ETA-ko batzuren extradioak. Ez dio ardurarik baldintza humiligarrietan izateak (nola onar lezake, bestela, Frantziako gobernuak baldintzak ezarriz, amore ematea?). PSOE-koek beste ezereen gainetik tanto bat nahi zuten. Horregatik aitortzen zuen publikoki gobernuari hertsiki lorturiko politiko batzu, extradizioen aurreko egunetan, bat bakarra lortzea ere nahiko zela. Beraz, ez zegoen jokoan, geroago esan denez, «justizia» egitea, lorpen politikoa baino. Azken

batetan, «bidezkoatasuna» konponketa politiko-ekonomikoaren pentsutan erabili da, gerora gizartearen eustarrizat jotzen den balioa zalantzan jarritz.

Euskal Herrian, oster, bai gertakizunaren aurreko egune-tan bai jarraikoetan, burruka, manifestazio eta herri mugimendu ugari izan da bazterretan. Oraingo honetan talde abertzale guz-tiak, arrazoiak desberdinak bazituzten ere, ahobatez elkartu dire esan behar. Horretaz, egia esan, zerikusi handia izan du «*Mundu-ko Herri eta nazio guztiei, gutuna*» aren alde herririk herri egin den izenpeka-biltzeak. Inork itxaroten ez zuen adineko erantzuna hartu du iniziatiba horrek 350.000 izenpeketa baino gehiago biltzea lortuz. Gutun horren bultzatzaile direnek antolatutako Bilboko Ibilaldiak ere izugarritzko arrakasta jaso zuen, azken unean zenbait partidu politikok atzera egin edo aurkako joera hartu baldin bazuen ere.

Extradizatuek ere, unearen larritasunaz jabeturik, burruka latza burutu dute, hil edo biziko gose grebari adoretu eta irmo-ki ekinez. Bide batez izugarritzko arrakasta sortu dute Europa osoan zehar eta, jakina, bereziki Euskal Herrian zehar. Nork zenbatu herririk herri bazter guztietan egin diren hertsialdiak, manifestazioak, enkartelatzeak,...

Arazo guzti honek, azken batetan, berraun urte luze haue-tan biziki iraun duen «euskal arazoa» deitua oraindik konpondu gabe dagoela ematen digu aditzera. Hain zuzen ukatu egiten zaiola gure Euskal Herri zatikatu honei askatasunez bere geroa-ren jabe izatea. Eragozpenak baino ez dizkigute jartzen Madri-detik eta horren ondorioz hainbatek oraindik Francoren garaie-tan bezala (guk bestetara nahi izango badugu ere) zapalkuntzari indarrez erantzutea baino beste irtenbiderik ez dute ikusten.

Guzti honek kezka larria sortzen digu errailetan, egungo egoera honek gure gizarteko bizitza barne-barnetik baldin-tzatzen du eta. Konponbideak lehenbaitlehen aurkitzen ez badi-ra, gerta daiteke, gainera, oraindik konpondu daitekeena herrita-

rron arteko burruka bihurtzea, inork uste ez dituen (nahiz eta alde zurratik garbi susmatu) ondorioak ekarriz.

Guztionen aurrean, zenbait galdera egin ditzakegu hemen, nor bere barruan haurnartu ondoren ondorioak atera ditzan:

- Zer nolako esanahia du «babes-herri» edo asiloa deritzagunak?
- Zeintzu bide erabil daitezke Agintaritzaren aurka? Edo eta hauek ukitu ezinak nahiz aldatu ezinak ote dira betirako?
- Nahitaez onartu behar ote dugu XVIII. mendean indarrean egin zen Europako harrien zatikaketa?
- Ez ote du, gaur egun, Euskal Herriak askatasuna (independentzia eta guzti) lortzeko eskubiderik? Baldin badu, zergaitik ukatzen zaio eskubide hori?
- Zenbateraino erabili daiteke biolentzia edo indarra askatasuna lortzeko? Eta ahaleginak egin arren beste biderik aurkitzen ez denean? Orduan zer?
- Demokrazia formala duten (benetakoa balitz onartuko litzateke besteen eskubidea) estatuak dute bakarrik indarra erabiltzeko baimena?
- Zer gertatzen da norbaitzuk Estatuaren izate konkretu horren aurka indarbidea hartzen badute, konkretuki, gizarte-zapalkuntzaren aurka (iraultza) edo nazio-zapalkuntzaren aurka (independentzia)?
- Euskal Herriak, badu demokratiko izendatzen den Espainiako estatuaren aurka (beraz, botoen beti galduko dugu, gehiengo beti heuren eskuetan izango da eta) independentziaren alde jokatzeko eskubiderik? Zenbateraino eta nola?
- Eta hori lortzeko, orain arte bezala, bestelako biderik izango es balu, orduan zer egin?
- Burrukaren ondorioz atzerrira ihes egin beharra izan dutenen eztradizioa aztertzerakoan, arazo politiko ala judizial

baten aurrean ete gara?

- Etabar, etabar...

Galdera guztiok, bestalde, egoera berezi mugatu batetan aztertu beharra dugu. Hain zuzen, gure Herri honek jasaten duen zapalkuntzako eta askatasunik nahiz eskubiderik ezezko egoerapean. Besterik beste jarraiok gogorra ekarri beharko ditugu gogoeta egiterakoan, desbideratu nahi ez badugu, behintzat:

- 1.- Egunokaz Madrیدهko Kongresuan bertan ere zenbaitek (eta ez euskaldunek bakarrik) agirian salatua izan denez, Madrیدهko agintariek ez diote Euskal Agintariei inolazko ahalbiderik edo konpetentziarik eman nahi izan. Honek Estatuaren sinestarritasuna bera ere arriskuan jar dezakeelarik.
- 2.- Kongresuko ezbaida horien ondoren (Felipe Gonzalez-ek elkarrizketarako eskuak eta bihotza aske eta gertu dituela aitortu ondoren) Barrionuevok egindako deklarazioek aho zabalik utzi dute mundu osoa. Honek, Euskal Herriari orain arte eman zaizkion ahalmenak, abertzaletasuna biztu eta «terrorismoa» ugaritzea baino ez dutela ekarri esan baitu.
- 3.- Azken urte bi hauetan behin eta berriro Garaikoetxeak (beste herritar ugarik ere bai) bake-bideak ekarrizketa politiko sakon baten bidez egin behar direla aldarrikatu arren, beti ezezko erantzuna jaso du estatuko agintarie-gandik. Hauentzat (Francorentzat eta haren jarraitza-leentzat bezalaxe) Espāñako estatuaren batasuna ezda-baidatu ezina baita. Gehiago oraindik, heuren ulertzen dutenetik desbideratzen diren guztiak talde indarzaletan laguntza ematen diotelako ote?
- 4.- Irtenbide bakartzat erredimendua jotzen dute. Horretarako polizia josi digute Euskal Herri osoa, bazter guztietan izugarritzko zampaketa, atxiloketak eta zigorketak neurririk gabe erabilliz, ezarri digutela. Adibiderako,

zenbait gertakizun gogora ekartzea baino ez daukagu:

a) Hor dugu «Amnistia internazionala» deitutako taldeak oraintsu publikoki argitara emandako txostenaren salakuntza. Españako estatuaren erabili ohi diren tortura metodoak salatzen ditu, batez ere Euskaldunoi eginak direla aitortuz.

b) Une honetan, besterik beste, ihes eginda bizi diren milako herritarrez gainera 700dik gora euskaldun ditugu Españan zeharko presondegietan gehienak «seguritate nagusiko» espetxe txarrenetan sartuak.

c) Egunokaz agiriko egin denez, Nafarroan bertan bakarrik urte honetako Urtarriletik Urriaren 25 arteko epaldian 502 nafatar atxilotu omen dituzte. Gehienak, egunak polizitegietan igaron ondoren, eta zenbaitek zigorra hartu ondoren, aske utziak izan dira. Atxiloketa horiek ugaritu egin dira azken hilabete honetan, Iraila-Urriaren artean 117raino helduz.

d) Egunero agertzen zaizkigu polizien eskuetatik iragandakoez eginiko tortura salakuntza gogorrak. Auzitegietara eramanak izateko arriskua izango dutela jakin arren gogor salatzen dituzte polizitegietan jasan izan dituzten torturak.

- 5.- Euskal Herriko Agintariak (Gotzaiek ere bai, behin baino sarriago) ere gogor salatu izan dituzte poliziak egingdako gehiegikeriak eta erabilitako errepresio medioak, kasu batzutan ekintzok Auzetegira eroateraino, hala nola Erreterikoa.
- 6.- Lege antiterrorista eta antzeke beste zenbait ere hor ditugu indarrean, gizonaren eskubiderik oinarritzkoenak zanpatuz eta bazter guztietan bildurra eta ikara hedatuz.
- 7.- Beste zenbait lege gogor ere bidean dira. Hauteskundectan hautagaiak buztarrapetik iragan erazteko prestatzen ari direnak, beronek hautatuek Konstituzioari zin

egitea exigituko bai du. Eta zer egingo dute Konstituzioaren aurkakoek? Guzurrezko zina egin? Hori hala-koetan egiten baldin bada, norengan izango dugu fida-
tzeke biderik?

8.- Etabar, etabar...

Egoera honela, zer esan guk? Zer nolako joera hartu? Non ote irtenbidea? Nola uxatu inguruotatik indar-bidearen iturburuak? Nola lortu ETA eta estatuaren artean gudua amaitzea. (Direla hamabost egun Goimiliako militar batek, Euskal Herriko «terrorismo» gudua dela eta gudua armez irabazten edo galtzen dela esan zuen publikoki). Bakea anikilazio bidez etorriko ote zaigu? Bide horrek ez ote du gogortu egingo burruka, Londrensen oraintsu Margaret Tacher-en aurka egindako atentatuen antzekoak sortzeko bideak ekarriz?

Guk nahi edo nahiez, egoera larri baino larriagoa dugunez, gutxienez konpontzeko bideak jartzea dezakegu. Transizioaldiari hasiera eman zitzaionean, ez zen euskal arazoari irtenbiderik emateko behar adinekorik egin eta oraindik lenengoetan dihardugu, Estatuaren bidez eta, urrats batzu eman badira ere.

Gizonaren bizitza hain handikoa izanik, ez duen inoren heriotzik nahi. Baina horretarako aldaketa handia behar! Ez da naitziko ETARI armak utzi eta entregatzeko eskatzea. Denok dakigu, hori eskatzea ezinezko zerbait eskatzea askatasunak eman behar dizkio. Bestela, gaurko ETA desagertzen baldin bada ere, bihar beste talderen bat agertuko da. Historiak, hori irakatsi digu, behintzat.

Egoera larri eta ilun honetan, egunerik egunera deihadar sendoak entzuten dira bazter guztietan, bai Euskal Herrian bai estatuko beste zenbait Herrialdetan, konponbideak bilatzeko deia eginez.

Horietako deihadar batek oihartzun izugarria izan du azken hilabete hauetan. Hain zuzen, «Munduko herri eta nazio guztiei, gutuna» deituak. Egoki dugu gutun hori hemen jartzea, gorago aipatu ditugun ideia nahasiak bat eratuz, hausarketa gai lasaia eskaintzeko. Hona hemen zer dion:

«Munduko Herri eta Nazio guztiei, Gutuna»

Behean izenpentzen dugunok, Euskal Herriaren ordezkari hautatuok, intelektual, idazle, poeta, artista eta profesionalo, eritzi publiko eta gogo oneko gizon emakume ororengana zuzentzen gara, ondoko hau adieraziz:

- 1.- Munduko biztanle eta nazio guztiei, bereziki Hego eta Ertamerikakoei, gure eskerrona agertzen diegu, zehazki arrazoi politikoengatik eta bereziki Espainako gerra zibil-ler geroztik exiliaturik izan diren mila euskal herritarrei emandako babes, arreta eta onarpenengatik.
- 2.- Euskal Herriaren azterketa soziologiko desberdinetatik, eta edozein joera politikotatik alde batera, Nazio Batuek onartzen dituzten giza eta herrien eskubideen argitan baina, hauxe aldarrikatu nahi dugu ahobatez, hots, «euskal arazoa» den hori, gaur egun ere -1984.eko uda partean hain zuzen-, benetako arazo politikoa dela.

Baieztapen hau egiaztatzeko honako datuok jasozten dituguz.

- 2.1.- Euskal herritarretatik ehuneko 60-k egun indarrean dagoen Kontituzio espainolaren kontra botau zuen edota abstenitu egin zen botatzerakoan.
- 2.2.- Euskal Herrian soilik ari diren partidu politiko guztiak, edota Autonomi Estatuarekin ez daude ados, edota Gobernu espainolak Estatuto hau aplikatzeko deun eraren kontra agertzen dira.
- 2.3.- Egun, Euskal Herriko 700 bat seme alaba Estatu espainoleko kartzeletan aurkitzen dira atxiloturik.
- 2.4.- Milaka dira oraindik munduan zehar exiliaturik dirautenak.
- 2.5.- Aurreko garaitan segidazko gobernu espainolak inposaturiko hezkuntza sistemek, hiltzorian jarri dute euskara: beraz, herritarretatik erdiak ez du ezagutzen, eta hizkuntz propioa den hori irakurtzeko eta idazteko gauza direnak are gutxiago dira.
- 3.- Zoritzarrez, esan beharra daukagu, polizia espainolak

zapalkuntza basatia ezartzen duela, euskal herritarren-
gan; berezitua, alegia. Aurtengo lehen sei hilabeteotan
743 pertsona izan dira detenituak, heurotarik, epaileen
eritziz, 115 bakarrik erakutsi dute delito-erru posibleren
aztarnarik.

- 4.- Mindurik arren, adierazi egin behar dugu tortura ohiz-
ko praktika dela polizietxeetan, ondoko erakunde zein
pertsonek are denuntziatu dutelarik:

Amnistia internazionala-k
Giza eskubideen aldeko Elkartea-k
Euskal Elizbarrutiatako Gotzaiak
Españako Parlamentuko euskal parlamentariak
Madrideko Abokatu gazteak
Bilbo eta Donostiako zenbait abokatu-k

- 5.- Gure arazo politiko honi irtenbidea aurkitzerakoan, be-
hin eta berriro, benetako elkarrizketa, benetako nego-
ziaketa eta Euskal Herriaren nortasunaren onarpena bi-
tarte eta kondizio oinarrizkotzat eman dute herri orde-
zarriekin, bat gatoz erabat. Hara zeintzuk agertu diren
era horretara, besteak beste: Eusko Jaurlaritzaren Lehend-
akaria, Herri Batasuneko Mahai Nazionalaren zenbait
kide, Eusko Alderdi Jeltzailearen EBB-ren Lehendaka-
ria eta zenbait kide, Euskadiko Eskerreko idazkari Oro-
korra, Españako Partidu Komunistaren zenbait buruzagi,
Catalunyako PSUC eta Euskadiko Partidu Komunis-
taren zenbait buruzagi.

Asmo honek eraginik, Euskal Herri eta Estatu espainolaren
pakatze benetakoak bultzaturik, justiziaz eta askatasunean, hauxe
adierazten diegu, zinez eta benetan, frantses herriari, Frantziako
Gobernuari eta egoera honek ukiturik dituen nazio oroiei,

Hots:

- 1.- Auzokide dugun frantses herria, orain arte bezala, ohiz-
ko babesleku izan dadila aurrerantzean ere, hori dela eta
benetan maitagarri izan baita euskal herri guztiarentzat
eta askatasunaren egarri diren guztientzat, Historian ze-
har.

2- Euskal ekintzaleak, estrategian zuzen ala oker, ez daitezela inolaz ere, gaizkile arrunt edo sozial omen direnekin nahas, huts historiko borobila bait litzateke hori egitea. Nahaste hau European zehar bere askapenaren alde ahaleginetan dabilzan herri eta kultur minoritarioen kontra doa zuzen zuzenean.

3.- Europa zein munduko nazioek, praktikan eta ondorio guztien jabe, jakin dezatela giza eskubideak euskal herriarekin lotzen, exiliatu politikoei dagozkienean: «Persekuzioan, pertsona orok du babeslekua bilatu eta edozein herritan disfrutatzeke eskubidea» (Gauza Eskubideen Deklarazio Orokorren 14. Art.)

Amaitzeko zera aldarrikatuko nuke: EXTRADIZIORIK EZ. DEPORTAZIORIK EZ. EXILIATURIK EZ. ESPETXERATURIK EZ. HERIOTZARIK EZ. TORTURARIK EZ. AMNISTIA OSOA. BAKEA EGITEKO ELKARRIZKETARAKO MAHAIA BULTZATU BEHAR DA. EUSKALDUNOI GEURE GEROAREN JABE IZATEKO (ZAZPIOK BAT LORTZEKO ERE BAI) ESKUBIDEA ZOR ZAIGU, HERRI BEREZI BAKAR BAT OSOTZEN DU ETA.

Araban bagare
Gipuzkun bagera
Ziberun bagire
ta Baizkaian bagara

Araban Bagare
Gipuzkun Bagera
Ziberun Bagire
ta Bizkaian Bagara.
baita ere
Lapurdi ta Nafarra

Guztiok gara euskaldun
guztiok anaiak gara
nahiz eta hitz ezberdinez
bat bera dugu hizkera.
Herri bat dugu osatzen
eta gure zabarkeriz
ez daigun utzi ondutzen
bagare bagera
bagire bagara
Euskadi askatzeko
oraintxe dugu aukera.
(Gorka Knör)

Patxi Uribarren